

## PRENTSA OHARRA

# BORTZIRIETAKO HIZKUNTZA ANIZTASUNA ETA MIGRATZAILEEN EUSKARAREKIKO JARRERAK AZTERGAI PELLO APEZETXEA ZUBIRI BEKAREN LEHEN EDIZIOAN

- Aurkeztutako sei proiektuetatik, Jon Martin Etxebestek, Paula Laita Pallaresek eta Ane Osua Cabidak landutako *Bortzirieta euskararekiko hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak* lana izan da puntuaziorik handiena lortu duen proiektua.
- Taldeak 7.000 euroko beka jasoko du eta emaitzak 2024ko irailean aurkeztu beharko ditu. Ikerketa honen ondorioak zabalteko aurkezpenak eta hitzaldiak antolatuko dira Bortzirieta herrietan.

IRUÑEA (2023-12-12). *Pello Apezetxea Zubiri ikerketa bekara* aurkeztutako sei lanak aztertu ondoren, epaimahaiak *Bortzirieta euskararekiko hizkuntza aniztasuna eta migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak* lana saritzeko erabakia hartu du. Bekak hiru ikerketa esparru lehenetsi zituen lehen edizio honetan: soziolinguistika, dialektologia eta onomastika. Deialdian bertan jakintza esparru horietako gai batzuk ere proposatu ziren eta egitasmo hau *immigrazioa, harrera, hizkuntza eta kultura aniztasuna zein euskara udalerrri euskaldunetan* ikerketa lerroan kokatzen da; epaimahaikideen iritziz, “deialdi honen helburuekin lerrokatzeaz gain, proiektu honek Bortzirieta Mankomunitatearen lan ildoetan ekarpen interesgarria egiteko aukera eman dezake”. Besteak beste, ikerketak honelako emaitzak aurreikusi ditu: kultura eta hizkuntza aniztasunari buruzko diagnostika; Bortzirieta bizi diren migratzaileen euskararen ezagutza- eta erabilera-maila; migratzaileen euskararekiko pertzepzioak eta jarrerak; ama-hizkuntzaren, euskararekiko esposizioaren eta beste faktore soziodemografikoen eta hizkuntzarekiko jarreraren arteko loturak eta, azkenik, migratzaileen hizkuntza beharrak identifikatzea eta harrera linguistikoaren egiteko hainbat estrategia eskaintzea.

Ikerketa garatzeko, metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa konbinatuko dira; nolahi ere, bigarrenari tarte handiagoa emanen zaio. Datuak biltzeko, galdetegiak, elkarrizketak eta eztabaida taldeak erabiliko dira, Bortzirieta udalerrri guztietan (Arantzan, Lesakan, Igantzin, Beran eta Etxalarren). Ikerketa lana 2024ko iraila bitartean egingen da.

## **Lan taldea**

Paula Laita Pallares – ikerlaria da Soziolinguistika Klusterrean. Eusko Jaurlaritzarekin eta unibertsitateekin batera, Euskara biziberritzeko proiektuetan lan egiten du: hezkuntza arautuan ahozketasuna lantzeko metodologiak garatzeko eta aplikatzeko egitasmoetan eta immigrazioari eta hizkuntza-aniztasunari buruzko ikerketa-proiektuetan, besteak beste.

Jon Martin-Etxebeste - EHU/UPV-ko ikerlaria eta irakaslea da. Haur Hezkuntzan graduatua eta Publizitatea eta Harreman Publikoetan lizentziatua da, Psikodidaktikako masterra egin du eta doktore da atal berean. 'Xabier Leteren kantagintzaren azterketa: gaiak eta ahozketasuna' doktorego tesia defendatu zuen 2022an. Ikerlari multidiziplinarra da; hizkuntzaren, literaturaren eta komunikazioaren esparruak lantzen ditu eta haiek lantzeko dauden oztopoak detektatzen eta leuntzen dituzten ikerlanak egiten ditu normalean.

Ane Osua Cabida - Haur Hezkuntzako teknikaria da. Haurtzaroarekin lotutako profesionala da. Haurren begirale lan egin du hainbat udal eta enpresarentzat. Gaur egun, Donostiako Hezkuntza Fakultatean dihardu Haur Hezkuntzako azken ikasturtea osatzen.

## **Pello Apezetxea Zubiri beka – Lehen edizioa**

Pello Apezetxea Zubiri (Goizueta, 1932 - Etxalar, 2022) arlo aunitzetako ikertzailea, ekintzailea eta sustatzailea izan zen. Hala, bereziki nabarmentzekoa da euskara babesteko, ikertzeko eta sustatzeko egin zuen lana. 2004. urtean, ohorezko euskaltzain izendatu zuten.

Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen sorreran bultzatzaile nagusietako bat izan zen. Geroztik ere, mankomunitatearen ibilbide osoan, Etxalarko Euskara Batzordeko kide eta Aholkularitza Batzordeko kide izan zen. Hortaz, mankomunitateak, Euskaltzaindiarekin elkarlanean, Pello Apezetxea zena omentzeko xedez, lau urtero antolatuko du ikerketa beka hau eta deialdi bakoitzean ikerketa esparru horietako gai berriak proposatuko ditu. Bekaren informazio guztia, esteka honetan: <https://bortziriak.eus/euskara-bortzirietan/pello-apezetxea-ikerketa-beka-2/>

## **UNA INVESTIGACIÓN SOBRE LA DIVERSIDAD LINGÜÍSTICA Y LAS ACTITUDES DE LAS PERSONAS MIGRANTES DE BORTZIRIAK GANADORA DE LA PRIMERA EDICIÓN DE LA BECA PELLO APEZETXEA ZUBIRI**

- De los seis proyectos presentados, el presentado por Jon Martín Etxebeste, Paula Laita Pallares y Ane Osua Cabida han obtenido la mayor puntuación con el trabajo “Diversidad lingüística de Bortziriak y percepciones y actitudes de las personas migrantes hacia el euskera”.
- El grupo recibirá una beca de 7.000 euros y deberá presentar los resultados en septiembre de 2024. Para difundir las conclusiones de este estudio se organizarán presentaciones y charlas en los municipios de Bortziriak.

PAMPLONA (2023-12-12). Tras analizar los seis trabajos presentados a la beca de investigación *Pello Apezetxea Zubiri*, el jurado ha decidido premiar el proyecto *Diversidad lingüística de Bortziriak y las percepciones y actitudes de las personas migrantes hacia el euskera*. La beca priorizó en su primera edición tres ámbitos de investigación: sociolingüística, dialectología y onomástica. En la propia convocatoria se plantearon algunos temas de estos ámbitos de conocimiento y este proyecto se enmarca en la línea de investigación de los municipios euskaldunes e inmigración, acogida, diversidad lingüística y cultural. El jurado considera que “el proyecto, además de estar alineado con los objetivos de esta convocatoria, puede ofrecer una interesante aportación en las líneas de trabajo de la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak”. El estudio prevé resultados como un diagnóstico sobre la diversidad cultural y lingüística, el grado de conocimiento y uso del euskera de las personas migrantes residentes en Bortziriak, las percepciones y actitudes hacia el euskera de las personas migrantes, las relaciones entre la lengua materna, la exposición al euskera y otros factores sociodemográficos y actitudes hacia la lengua y, finalmente, la identificación de las necesidades lingüísticas de las personas migrantes y la propuesta de diversas estrategias de acogida lingüística.

En la investigación se combinará la metodología cuantitativa y cualitativa, si bien se utilizará más la segunda. Se utilizarán cuestionarios, entrevistas y grupos de discusión en todos los municipios de Bortziriak (Arantzeta, Lesaka, Igantzi, Bera y Etxalar). El trabajo de investigación se desarrollará hasta septiembre de 2024.

## **Equipo**

Paula Laita Pallares – investigadora en el Cluster de Sociolingüística. Colabora con el Gobierno Vasco y las universidades en proyectos de revitalización del euskera como el desarrollo y aplicación de metodologías para trabajar la oralidad en la educación reglada o proyectos de investigación sobre inmigración y diversidad lingüística.

Jon Martin-Etxebeste - investigador y profesor de la UPV/EHU. Graduado en Educación Infantil y Licenciado en Publicidad y Relaciones Públicas, ha realizado un máster en Psicodidáctica y es doctor en dicho ámbito. En 2022 defendió la tesis doctoral 'Xabier Leteren kantagintzaren azterketa: gaiak eta ahozkotasuna (Estudio de la canción de Xabier Lete: temática y oralidad)'. Es un investigador multidisciplinar que trabaja en los ámbitos de la lengua, la literatura y la comunicación y realiza normalmente estudios orientados a identificar y atenuar las barreras existentes entre dichas disciplinas.

Ane Osua Cabida - técnica de Educación Infantil. Profesional relacionada con el ámbito de la infancia. Ha trabajado como monitora infantil para diferentes ayuntamientos y empresas. Actualmente trabaja en la Facultad de Educación de Donostia / San Sebastián, en el último curso de Educación Infantil.

## **Beca Pello Apezetxea Zubiri beka – Primera edición**

Pello Apezetxea Zubiri (Goizueta, 1932 - Etxalar, 2022) fue investigador, emprendedor y dinamizador en numerosos ámbitos. Entre todos ellos, destaca especialmente su labor de apoyo, investigación y promoción del euskera. En 2004 fue nombrado académico de honor de Euskaltzaindia.

Fue uno de los principales impulsores de la creación de la Mancomunidad de Euskera de Bortziriak. Posteriormente, durante toda la trayectoria de la mancomunidad, hasta que la salud se lo impidió, fue miembro de la Comisión de Euskera de Etxalar y de la Comisión de Asesoramiento. Por todo ello, la Mancomunidad ha organizado junto con la Real Academia de la Lengua Vasca esta beca de investigación con el objetivo de homenajear a Pello Apezetxea Zubiri. En el siguiente enlace se puede encontrar toda la información sobre la beca (en euskera): <https://bortziriak.eus/euskara-bortziritan/pello-apezetxea-ikerketa-beka-2/>